

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
EUSKALTEGIEN AZPIBATZORDEA
3. batzarraren AKTA.
2017ko maiatzaren 18a – 10:00-11:30

BERTARATUAK

Bilboko Udala

Koldo Narbaiza (Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia)

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)

Euskaltegiak

AEK. Galder Lizarralde

Bai&By. Noemi Casero eta Leire Colodrón

Bilbo Zaharra. Jon Maguregi

Deustuko Unibertsitatea. Mertxe Luzuriaga

Gabriel Aresti. Xabier Monasterio eta Isabel Isazelaia

Juan Mateo Zabala. Nerea Telleria

Ulibarri. Patxi Agirregomezkorta

Ezin etorria aldez aurretik adierazi dute

Labayru Fundazioa. Josemi Vidales

Mondragon Lingua. Aitziber Iturricastillo

Idazkaritza teknikoa

Bilbao Metropoli-30. Idoia Postigo

Labayru Fundazioa. Lander Solozabal

GAI-ZERRENDA ¹

1.- AURREKO BILERAREN (2017-02-27) AKTA ONARTU.

Koldo Narbaizak hasiera eman dio bilerari, eta parte hartzaileei beraien **laguntza eta konpromisoa eskertu** die.

Jarraian, aurreko bileraren **akta onartu da** aho batez.

2.- BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO BILERAREN BERRI EMATEA.

Jone Unzuetak eta Marijo Arrietak labur-labur esan dute **bilera honen helburua** dela Aholku Batzordearen aurreko bilerakoak azaltzea eta hemendik aurrerakoak zehaztea, baina horren aurretik egoki ikusten dutela (bileretan beti ez dagoelako jende bera eta hirugarren bilera delako) orain arteko ibilbidea gogoraraztea.

Lander Solozabalek **orain arte egindako bidea** azaldu du:

Euskararen Aholku Batzordea 2016ko otsailean sortu zenetik, lau bilera egin ditu, eta horietan, besteak beste, hauek zehaztu eta finkatu ditu: osaera, helburuak, funtzionamendua, kronograma, arautegia, ESEPen azalpena, bisio estrategikoa definitu eta hiru azpibatzerdeak sortu.

Aholku batzordearekin batera, hiru azpibatzerdeek (euskaltegiarena, euskara-elkartearena eta hedabidearena) bina bilera egin dituzte (hau dugu hirugarrena), bisio estrategikoa adostu eta helburuak eta ekintzak zehazteko.

Aholku Batzordea eta azpibatzerdeak lotuta doaz eta koordinatuta daude: batean egiten, proposatzen eta zehazten dena, bestera eramaten da, eta alderantziz.

Gaurko bilerara etorrira, gogoratu ditu azpibatzerde honen **azken bileran (otsailean) eman ziren pausoak**. Bertan helburu eta ekintza zehatzak proposatu, adostu, bateratu, zerrendatu eta bozkatu ziren. Horren ostean, ekintza horiek -eta beste azpibatzerdeetakoak ere- Aholku Batzordera eraman ziren (apirilean), eta lau multzotan banatu ziren: soilik euskaltegienak zirenak, soilik euskara-elkarteenak zirenak, soilik hedabideenak zirenak, eta azpibatzerde batean baino gehiagotan agertu zirenak (zeharkakoak edo transbertsalak).

¹ Gai-zerrenda aurkezteko eta bileran lantzeko powerpoint formatuan egindako aurkezpena erabili da.

Horrez gain, aparteko muntzoan zehaztu ziren Udalak berak bideratu behar dituen ekimenak.

3.- HURRENGO PAUSUAK AUKERATUTAKO EKINTZAK MARTXAN JARTZEKO

Azpibatzerdeetako ekintza guztiak aztertu ondoren, eta aurrera begira lan-metodo bat ezartze aldera, **hiru taldetan multzokatu ziren ekintzak**: udalari (batez ere) dagozkionak, azpibatzerdeek gehiago zehaztu eta landu beharrekoak (orokorregiak direlako), eta azpibatzerdeei (batez ere) dagozkienak.

Euskaltegien azpibatzerde honen kasuan, gehiago landu eta zehaztu beharreko ekintza “Etorikin, guraso, merkatari eta talde zehatzentzako ekintzak” izan zen, eta azpibatzerdeari (batez ere) dagokion ekintza “Euskaltegiak bisitatzekeo jardunaldiak” izan zen.

Proposatu da bi ekintza horiek lantzen hastea, eta emaitza irailaren erdian aurkeztu, urrirako aurreikusi den Aholku Batzerdeko bilerara eramane ahal izateko.

4.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Udalak aurrera eramango dituen ekimenak aurkeztu ondoren, solasaldia sortu da euskaltegien eta euskara ikasteko diru-laguntzen inguruan. Hauek dira solasaldi horretako ondorio nagusiak:

- Euskaltegiatarako diru-laguntzen gaia larria eta garrantzitsua da.
- Gai honekin lotuta, komenigarria litzateke Bilboko Udalaren aurrekontuak eguneratzea.
- HAKOBAn Udalaren partetik egingo diren aurrerapenak oso baliagarriak izango dira, baina erritmoa eta denbora arazoa izan daiteke. Horregatik, bide paralelo bat ere jorratzea proposatzen da.
- Bilbok erreferentzia markatu behar du, eta aitzindaria eta eredugarria izan beste herrientzat, hala dagokiolako, eta gai honetan efektu biderkatzailea lor dezakeelako.
- Partida ekonomikoak estrategia baten barruan kokatu behar ditugu.
- Adostu egin da gai zehatz hau (diru-laguntzak) lantzeko bilera monografikoa egingo dela, **maiatzaren 30ean, 10:30etan**. Gaiari buruz gogoeta egin ahal izateko, bilera eguna baino lehen. **maiatzaren 25erako**, euskaltegiek dauzkaten proposamenak eta informazioa guztia bilduko dute eta Euskara Zuzendariordezara bidaliko, honek azpibatzerdeko kide guztiei zabaldu diezaien informazio hori bilerarako deiarekin batera.

Bestetik, Aholku Batzordeak eskatu zion Euskaltegien azpibatzerdeari helburu zehatz bat (“Etorikin, guraso, merkatari eta talde zehatzentzako ekintzak”) gehiago zehaztu eta lantzeko. Horrekin lotuta, hau adostu da:

- Estrategia zehatz bat definitu behar da talde bakoitzarengana heltzeko.
- Aztertu behar dira zeintzuk diren produktu egokiak eta arrakastatsuak. Euskaltegiei eta beste azpibatzerdeei eskatuko zaie esperientzia onen berri ematea eta beste bilera batean aztertuko dira.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa kontuan izango da beti produktu berriak egokitzen direnean.
- Merkataritza arloan euskararen erabilera bultzatzeko, Udalak bilera bat antolatuko du Bilboko merkatarien elkarteko arduradunekin, eta azpibatzerde honetako kide batzuk gonbidatuko ditu bertan parte har dezaten.

Bilbon, 2017ko maiatzaren 18an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA